DOCTEUR MICHEL LABEGUERIE
MÉDECIN PHTISIOLOGUE
DES SERVICES PUBLICS ANTITUBERCULEUX
APPAREIL RESPIRATOIRE

CAMBO, LE Martxoaren 15ean
TÉL. : 167

Jauna eta Adixkidea.

Ekhei hori Eppherre Kalonjeak du pentsatu, guk onhartu.
Nahiz ez den nehori fidatu behar, harri nindezake, eta zu ere, segur, diozun ozarkeria hori gure adixkide agurgarriak asmatu ere balu.

Bainan ongi orhoit naiz Napoleonen guduak aipatu zituela.
Jaun horren laguner aldiz ez diot hitzik aditu.

Paperetan da beraz gure idazlaria tronpatu.

Huts horrek on bat baduke. Arrosako bilkuran, Zerbitzari adixkideak baliatzen ahalko du bere mintzaldiko, berak dakien bezala moldatuz eta aphainduz.

Horren gatik barkatuko dauzkuzu, othoi!

Bihotzez zure

[illegible]

Dr. Labéguerie
ASSEMBLÉE NATIONALE

PARIS, LE 21 - V - 64

Jaun Kalonjea
et Adixkidea,

Hitzeman letra igortzen dautzut.
Gauden beha arrapostuari!

Joan den astelehenean, Baigorrin,
bertsulariak Heletan baino hanitz
hobekiago ari izan dira.
Jende-alde pollita, eta biziki
gustatua.
Gaietan bat: Eskual-Herriaren
azkatasuna. Sujet kokina, eta
bertsulariek ez zuten gostukoa.
Erran diotet beraz nahi zuten
gisan emaitea, eta haxean ezartzeko,

bertsu hau kantatu diotet :

Libertatea, azkatasuna, bi hitzak gauza berari
Hitzez girela aberatsenak hortan zerauku ageri
Altxa biotzak, altxa begiak, beha eskual banderari
Batasuna du horrek eskaintzen zazpi eskual anaieri.

Hortan berotu disa, bertsu ederrak eman dituzte, Xalbadorrek ederrena! – Saloman erregea deitzen zuela auzi berri baten erabakitzerat, zonbeitek bi parte egin nahi duten haur gaichoaren bere zinezko amari emaiterat.

Horra egungo.

Egun hauk arte, jaun kalonjea

Zure zerbitzari biotzez

Ithal. [signature]

Docteur M. LABÉGUERIE

Kambotik 19.12.70

Jaun Kalonje maitea,

Bai ote dakizu nola erraiten den eskuaraz "la sucette" edo "la chupeta"? Nik egun arte ez nakien.

"Tutua" erraiten zaio "la tétine" delakoari.

Arratsalde huntan Baztango andere batek ekarri daut bere haur ttikia. Nigarrez hasi zaiolarik, ahorat eman dio "tutu mutua".

Hitz pollita eta zuzena iduritu zait.

Horren gatik igortzen dautzut entzun bezela.

Ene neskatoak Vera-koak baitira, galdegin diotet izen hori ezagutzen dutenez. Ez dute "txupetua" baizik ezagutzen. Eta Lapurdin "züzeta" beti entzun dut.

Menturaz ez dautzut fitsik berri ikasten.

Dena den, bihotzetik agur eta eguberri on!

Labè


HENDAYE
BAYONNE
ESKUAL-HERRIA
BIARRITZ
St JEAN DE LUZ
USTARITZ
MAULEON
TARDETS
BASSE-NAVARRE
LABOURD
St JEAN PIED DE PORT

LE DOCTEUR MICHEL **LABÈGUERIE**

Conseiller Général des Pyrénées-Atlantiques

Maire de Cambo-les-Bains

*vous présente ses meilleurs vœux pour la nouvelle année.*

Jainkoak begira zaitzala osagarrian

Egun horiek arte

M Labeg

Parlement de Navarre

PAYS BASQUE

*(Peinture de Henri Zo)*

MARRIMPOUEY JEUNE, PAU